TIROIDEKTOMIA
(Interbentzio-osterako zaintza eta gomendioak)

- Hasieran, egin dieta biguna eta, gero, pixkanaka-pixkanaka, hasi beti bezala jaten.
- Ez jan ogirik, gutxienez, 6 egunean.
- Datozen egunetan hartu tenperatura arratsalde-gau aldean. 38 ºC edo gehiago baduzu, galdetu zure familia-medikuari.
- Minik baduzu, hartu zirujauak esandako analgesikoa.
- Normala da zauria pixka bat gogortuta eta kanporaka egotea. Ez kezkatu zauriaren inguruan kolorazio more arin bat, ubeldura baten tankerakoa, agertzen bada (pixkanaka kolorea aldatuz eta desagertuz joango da).
- Berriro ere bizitza normala egiten noiz hasi zure bilakaerak adieraziko dizu.
- Galdetu zure familia-medikuari edo joan larrialdietara baldin eta:
  - Min bizi eta iraunkorra baduzu, eta agindu dizuten analgesikoa hartuta arintzen ez bada.
  - Eskuak edo ahoa laztuta eta gogortuta sumatzen badituzu, besoak inurritzen bazaizkizu edo itomena sentitzen baduzu, joan larrialdietara.
- Joan medikuaren kontsultara esandako egunean eta orduan.